

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2022ko iraila

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek eta ostatu-gauak, 2022ko irailean, % 22,6 eta % 23,5 egin dute gora

Udako hiletan, nabarmen gairitu dira 2021eko zifrak, eta 2019koen gainetik daude

2022ko irailean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 22,6 egin dute gora, eta ostatu-gauak, % 23,5, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. Sarrerak, guztira, 330.304 izan dira, eta ostatu-gauak, 650.800.

2022ko irailean, sarrera guztien % 49,6 eta ostatu-gauen % 50,1 atzerritarrenak izan dira. 2021eko irailean, berriz, atzerritarren sarrerak eta ostatu-gauak kopuru osoen % 37,0 eta % 35,8 izan ziren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaurdiak, batez besteko egonaldia. Iraila 2022

	Sarrerak		Gaurdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2022/09	m/m-12 (%)	2022/09	m/m-12 (%)	2022/09	2021/09
EUSKAL AE	330.304	22,6	650.800	23,5	1,97	1,96
Estatukoak	166.591	-1,8	324.517	-4,1	1,95	1,99
Atzerritarrek	163.713	64,2	326.283	72,9	1,99	1,89
Araba/Álava	43.146	25,4	78.191	14,7	1,81	1,98
Estatukoak	27.372	7,9	51.159	-0,1	1,87	2,02
Atzerritarrek	15.774	74,4	27.032	59,6	1,71	1,87
Vitoria-Gasteiz	30.161	24,9	57.651	13,1	1,91	2,11
Bizkaia	151.994	25,6	296.148	28,5	1,95	1,90
Estatukoak	77.122	-1,7	148.145	-2,1	1,92	1,93
Atzerritarrek	74.872	76,0	148.003	86,9	1,98	1,86
Bilbao	104.119	29,1	200.880	31,9	1,93	1,89
Gipuzkoa	135.164	18,6	276.461	21,1	2,05	2,00
Estatukoak	62.097	-5,7	125.213	-7,8	2,02	2,06
Atzerritarrek	73.067	51,9	151.248	63,4	2,07	1,92
Donostia / San Sebastian	81.948	19,2	179.221	25,4	2,19	2,08

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko irailean, hotel-establezimenduetako sarreraren % 13,1 Araban kontabilizatu dira, % 46,0 Bizkaian eta % 40,9 Gipuzkoan. Ostatu-gauak dagokienez, Araban 78.191 kontabilizatu dira, guztizkoaren % 12,0; Bizkaian, gora egin du kopuruak eta 296.148 izan dira, guztizkoaren % 45,5, eta, Gipuzkoan, ostatu-gauak 276.461 izan dira, Euskal AE osoan erregistratutako guztien % 42,5.

Hotel-establezimenduetan 2022ko irailean sarrera kopuruan izan den urte arteko hazkuntza % 25,6koa izan da Bizkaian, % 25,4koa Araban eta % 18,6koa Gipuzkoan. Ostatu-gauen kasuan, urte arteko aldakuntzak % 28,5ekoak izan dira Bizkaian, % 21,1ekoak Gipuzkoan eta % 14,7ekoak Araban.

Hiriburuka, sarrera kopuruak, urte arteko terminoetan, % 29,1 egin du gora Bilbon, % 24,9 Vitoria-Gasteizen eta % 19,2 Donostian. Antzera, ostatu-gauen igoera % 31,9koa izan da Bilbon, % 25,4koa Donostian eta % 13,1ekoa Vitoria-Gasteizen.

2022ko iraileko batez besteko egonaldia 1,97 egunekoa izan da Euskal AE osoan, 2021eko hil berekoaren oso antzekoa, 1,96 egunekoa izan baitzen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Iraila 2022

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2022/09	p.p. *	2022/09	p.p. *	2022/09	m/m-12 (%)	2022/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	64,1	9,4	76,7	11,6	116,59	22,0	89,40	43,7
Araba/Álava	56,0	5,8	70,8	6,9	90,41	11,1	64,01	23,1
Vitoria-Gasteiz	55,4	4,5	73,6	6,0	70,25	3,5	51,67	12,7
Bizkaia	62,0	10,7	75,3	14,2	101,18	27,3	76,23	56,9
Bilbao	67,6	13,0	81,4	18,1	115,58	32,6	94,08	70,6
Gipuzkoa	69,4	9,2	80,3	10,1	141,74	21,5	113,75	39,0
Donostia / San Sebastian	76,3	11,3	87,3	12,8	178,94	23,6	156,20	44,9

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2022ko iraileko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 64,1ekoa izan da, eta % 76,7koa, gelen arabera neurtuz gero. 2021eko irailarekin alderatuta, ehuneko 9,4 eta 11,6 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua, Euskal AE osoan, 116,59 eurokoa izan da 2022ko irailean; alegia, % 22,0 areagotu da, aurreko urteko irailarekin alderatuta. Gipuzkoaren kasuan, 141,74 eurokoa izan da ADRa; Bizkaian, 101,18 eurokoa, eta, Araban, 90,41 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak dira; izan ere, ADRa 178,94 euro izan da Donostian, 115,58 euro Bilbon eta 70,25 euro Vitoria-Gasteizen.

RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AE mailan, 89,40 euro izan dira 2022ko irailean, aurreko urteko hil berean baino % 43,7 handiago.


2022ko udako balantzea (uztaila, abuztua eta iraila)

Ostatu-gauek Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2022ko udan izan duten bilakaerak agerian jartzen du Covid-19aren aurreko ekitaldietako hil beretako zifrak berreskuratu eta gaingitu direla.

Hiru hil horietan, Euskal AEn 1.111.101 pertsonaren sarrerak eta 2.255.878 ostatu-gau izan dira. Sarrera eta ostatu-gauen bolumen horrek 2021eko udan kontabilizatutakoak gaingitzen ditu, % 20,9an eta % 20,2an, hurrenez hurren, eta Covid-19aren aurreko ekitaldietan udako hil beretan ikusitakoak baino handiagoak ere badira. Hala, 2019an, sarrerak 1.002.048 izan ziren eta ostatu-gauak, 2.100.567.

Lurralde historikoari dagokionez, sarrera kopuruak gora egin du, 2021eko udarekin alderatuta, % 27,1 Bizkaian, % 18,4 Araban eta % 15,2 Gipuzkoan. Ostatu-gauetarako dagokionez, gorakadak Bizkaian % 24,4koak izan dira, Gipuzkoan % 18,0koak eta, azkenik, Araban, % 13,7koak. Sarreraren kopuruak eta ostatu-gauetarako gaituzte egiten dituzte 2019ko balioak hiru lurraldeetan, bai eta haien hiriburuetan ere.


Gaualdiak Euskal Aeko hotel-establezimenduetan, lurralde historikoaren arabera. Uda Uztaila-abuztua-iraila metatua



Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Kontuan hartu diren udako hiru hiletako sarrera eta ostatu-gauen jatorriari dagokionez, 2022an bisitari kopuru osoaren gaineko atzeritarren ehunekoak Covid-19aren aurreko balioak berreskuratu dituela ikusten da; 2019an, % 49,8koak ziren, sarreraren kasuan, eta % 48,0koak, ostatu-gauen kasuan.

Gaualdiak Euskal AEko hotel-establezimenduetan, jatorriaren arabera. Uda Uztaila-abuztua-iraila metatua



Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharra

Hotelen ETHlren estaldura % **88,6**koa izan da irailean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismo-datuen esploratzailea. Hotele-establezimenduak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62